

Erreka-errotak / Molinos de rio



Arabeko errota

Industria aurreko ondareari dagokionez garia eta artoa irintzeko erreka-errota ugari ezagutu ditu Errezilek. Gipuzkoan 600dik gora irin-errota (molino harinero) aritu baziren lanean, XIX. mendearen erdialdera horietatik zortzi Errezilen zeuden. Pasa den mendearen hasieran ere zortzi ziren, baina 1980ko hamarkadan Antxon Agirre Sorondok egindako azterlanean hamabi dira aipatzen dituenak. Honakoak bailaren goialdetik hasita errekan behera:


Agirretxeerrota (1), Arabekoerrota-goikoa (2), Arabekoerrota-bekoa (3), Belamendierrota (4), Lizarretaerrota (5), Landarrainerrota (6), Utsetaerrota (7), Erkiziaerrota-goikoa (8), Erkiziaerrota-bekoa (9), Zurrunzolaerrota (10), Estradazarraerrota (11) eta Estradaberrierrota (12).

En lo que respecta al patrimonio anterior a la era industrial, Errezil ha conocido muchos molinos de rio para moler harina y trigo. En Gipuzkoa había más de 600 molinos de harina que funcionaban en el siglo XIX, y a mediados del siglo XX, ocho de ellos estaban en Errezil. En cambio, un estudio realizado por Antxon Agirre Sorondo señala que en la década de los 80 Errezil contaba con doce: Agirretxeerrota (1), Arabekoerrota-goikoa (2), Arabekoerrota-bekoa (3), Belamendierrota (4), Lizarretaerrota (5), Landarrainerrota (6), Utsetaerrota (7), Erkiziaerrota-goikoa (8), Erkiziaerrota-bekoa (9), Zurrunzolaerrota (10), Estradazarraerrota (11) y Estradaberrierrota (12).

" Gipuzkoan 600dik gora irin-errota (molino harinero) aritu baziren lanean, XIX. mendearen erdialdera horietatik zortzi Errezilen zeuden.



Errezil errekan zehar errotak Molinos a lo largo del rio Errezil



Bi errotarri pare zituzten guztiek, hau da, uraren indarrak mugiarazten zituen bi burdinazko gurpil edo azelin, eta bi ardatz bertikal. Batean artoa ehotzen zen, laborea bestean, garia nagusiki. Batzuetan gainera, erreka berean eta tarte laburrean bi errota jarraian izaten ziren, bata bestearen ondoan. Errezilen, horren adibide izan dira esaterako Arabekoerrota goikoa eta behekoa, Erkiziaerrota biak edota Estradazar eta Estradaberri errotak.

Batzuetan, errotaria errota gaineko etxebizitzan bizi zen. Bestalde, kasu gutxi batzuetan, XX. mendearen hasieran alea ehotzeari utzi eta inguruko baserritarrentzako argindarra sortzeko indarretxe bilakatu ziren, errotarren ordez dinamo edo sorgailuak jarriz, adibidez Arabekoerrota Bekoa.

Galsoroak nahiz artasoroak gero eta urriagoak zirenez, 1960ko hamarkadan ordurako bere jarduera eten ez zuten errota gehienak betirako geratu ziren. Landarrainerrota izan zen geratu zen azkena, 1971 urtean egin zuen azken gari-ehoketa, eta 1978an artoarena.

Zoritzarrez batek ere ez du zaharberritzeko zortirik izan, eta egun Errezilgo errota guztiak eraitsita daude. Makinariaren zati bat besterik ez da kontserbatzen Landarrainerrotan, eta bakanak dira oraindik zutik dituzten errota-eraikinetako pareta zaharrak, horien artean, hemen beheko Arabeko antepara, errota eta indarretxeak.

Desafortunadamente, ninguno ha sido restaurado, y ahora los molinos de Errezil están demolidos. Sólo una parte de la maquinaria se conserva en Landarrainerrota, y sólo algunas de las antiguas paredes de los molinos aún permanecen en pie, entre ellas las del caserío Arabe que puedes ver abajo.



Presa edo antepara



Arabeko errota



Landarrainerrota



Ur turrusta gurpila mugitzen




Zurrunzolaerrota

Burdinolak

Errezilen industria ondarearen arrastoa utzi duten beste jarduera ekonomiko aipagarri bi burdinolak eta meatzaritza izan dira:

Izenak berak dioen moduan, Urola olagizon-ibaiaren adarra den Errezil-errekan Zurrunzolaerrota burdinola izan zen errota baino lehen.



Meatzeak

Meatzaritzari dagokionez, Gipuzkoako lurraldean barrena sakabanaturik dauden meatze-ustiapen ugarien artean garrantzitsuenetakoa ez izanagatik, Mendibeltzaren hegieetan, Azulegiko meatze-barrutitik zinka ateratzeko prospekzioak egin zituzten. 1906 urtean 103,5 tona kalamina ustiatu ziren, 203,3 tona hurrengo urtean. 34 langilek egin zuten lan, 18 barrualdean eta 16 kanpoaldean.



Bertsoa

*Herriarentzat erraztasunak
nahi zituztenez aurkitu
lehenik presak egin zituzten
eta gero egokitu
argi indarra sortu zezaten
eta errotak mugitu
aleak irin bihurtu arte
ta gau ilunak argitu*

Bertsoaren egilea: Loidi Saletxe